

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 72/2024 Erabakia, otsailaren 20koa. Onestea toki erakundeak aurreikusi ezin diren egoeretan finantzatzeko gai ez diren ezusteko eta larrialdiko obrei aurre egiteko dirulaguntza lerroaren 2024ko deialdia

Foru Aldundiaren gobernuaren legegintzaldiko helburuen artean, lurralde oreka lortzea nabarmentzen da, eta, beraz, beharrezkoa da laguntza publikoa erabiltzea toki erakundeek finantzatu ezin dituzten eta, gainera, premiazko arreta behar duten ezustekoei aurre egiteko.

Dirulaguntza hauen helburu nagusia da Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeei sortzen zaizkien premiazko ezusteko gastuak eta larrialdi obrak finantzatzen laguntzea. Oro har ustekabekotzat hartzen dira betebeharrak ekonomiko hauek: aurrekontuan kreditu nahikorik eduki ez eta toki erakunde horiek, premiazkoak izanik, berehala finantzatu ezin dituzten betebeharrak ekonomikoak, baldin eta horiek ez betetzeak pertsonak arriskuan jartzen baditu edo jarri ahal baditu.

Irailaren 4ko 43/2018 Foru Dekretuaren bidez onetsi ziren 2018ko irailaren 10eko ALHAOn (104. zk.) argitaratu ziren oinarri orokorrak.

Obra eta Zerbitzuen Foru Plana arautzen duen apirilaren 12ko 9/2017 Foru Arauaren zortzigarren xedapen gehigarriak honako hau ezartzen du: "1. Foru Arau honen 5.1 artikuluan ezarritakoa aplikatuta sortzen den urteko zuzkiduratik, gehienez ere ehuneko sei gorde ahal izango da larrialdietako obrak eta ezustekoak finantzatzeko". Halaber, seigarren apartatuan, zortzigarren xedapen gehigarriak ezartzen du urteko deialdien ondorioak hurrengo aurrekontu ekitaldira arte luzatu ahal izango direla.

Kontuan hartuta 2024rako luzatutako 2023rako Arabako Lurralde Historikoko aurrekontuan Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren aurrekontua 19.389.126,00 eurokoa dela 2024rako, ekitaldi bakoitzean erreserbatu beharreko gehieneko zenbatekoa 1.163.347,56 euro da. Hala ere, une honetan 500.000,00 euro esleitzea proposatzen da, urteka honela banatuta:

- 2024. urtea: 300.000,00 euro.
- 2025. urtea: 200.000,00 euro.

Hala ere, zenbateko horiek handitu ahal izango dira 9/2017 Foru Arauaren zortzigarren xedapen gehigarrian ezarritako gehieneko mugaraino, beharrezkoa izanez gero.

Dirulaguntza diruz lagun daitekeen aurrekontuaren ehuneko 100era irits daiteke, gehienez ere 300.000,00 euroko dirulaguntzarekin toki erakunde eta proiektu bakoitzeko.

Deialdia idazteko, kontuan hartu da Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak eta EAeko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen testu bategina onesten duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak ezarritako arau esparrua.

Halaber, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen 11/2016 Foru Arauaren 7.3 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, kontuan hartu da euskararen erabileraren faktorea Arabako Foru Aldundiak onetsitako hizkuntza normalizazioko politikaren esparruan, eta Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen arabera.

Horregatik, Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko foru diputatuaren proposamenez, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe hartutako

ERABAKIA

Lehenengoa. Onespena ematea Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailak lehia libreko araubidean dirulaguntzak emateko 2024ko deialdiari. Dirulaguntza horien xedea da Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeei laguntzea beren kabuz finantzatu ezin dituzten ezustekoei eta larrialdi obrei aurre egiten, aurreikusi ezin diren egoerak direlako. Deialdia espedienteari lotuta dago eta erabaki honen l. eranskinean jasotzen da.

Hasieran esleitutako zenbatekoa handitu ahal izango da, gehienez ere, Obra eta Zerbitzuen Foru Plana arautzen duen apirilaren 12ko 9/2017 Foru Arauaren zortzigarren xedapen gehigarriaren ezarritakoaren arabera lortutako urteko zuzkiduraren ehuneko seira arte.

Bigarrena. Arabako Lurralde Historikoaren 2024rako luzatutako 2023ko ekitaldirako aurrekontuko "10203. G/459100/76200105 Larrialdiko obrak" partidaren 2024ko urterokoaren kargura emango dira dirulaguntzak, bai eta partida horren 2025eko ekitaldirako konpromiso kredituaren kargura ere, urteka honela banatuta:

- 2024ko urtea: 300.000,00 euro.
- 2025eko urtea: 200.000,00 euro.

Hirugarrena. Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko diputatuari ahalmena ematea obrak izapidetzeko eta gauzatzeko behar diren egintza eta xedapen guztiak eman ditzan.

Laugarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratuko da, eta argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Bostgarrena. Administrazio bidean behin betikoa den erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkez daiteke zuzenean Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Hori guztia, bat etorritz Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan xedatutakoarekin.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko otsailaren 20a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko foru diputatua

ANARTZ GORROTXATEGI ELORRIAGA

Lurralde Orekaren zuzendaria

LAURA PÉREZ BORINAGA

I. ERANSKINA

2024ko deialdia, Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailaren dirulaguntzak emateko, Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeak finantzatzeko gai ez diren eta pertsonentzako arrisku errealak edo potentzialak eragiten dituzten ezustekoei eta premiazko obrei aurre egiteko

1. Deialdiaren xedea

Deialdi honen xedea da Arabako Foru Aldundiko Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailak aurrekontu kredituen kontura ustekabeko gastu urgentek eta larrialdiko obrak finantzatzeko ematen dituen dirulaguntzetarako baldintzak, betebeharrak eta prozedurak ezartzea. Deialdia arautzen duten oinarriak Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 4ko 43/2018 Foru Dekretuaren bidez onetsi ziren.

Laguntza programaren ondorioetarako, ezustekotzat eta premiazko obratzat hartuko dira honako hauen ondorioz azkar eta urgentziaz esku hartzeko inbertsio ekonomikoa behar duten jarduketak: natura hondamendien ondorioz, muturreko edo oso indarkeriazko eguraldi txarraren ondorioz (ur ekaitzak, haizea, ur goraldiak, etab.) edo bestelako egoera kaltegarri eta kontrolaezinen ondorioz oso epe laburrean jazotako istripuak edo gertatzeko arrisku handia dutenak, baldin eta horien helburua bada hondamendiek eragindako kalteak saihestea, edo zerbitzu publikoak emateko erabiltzen diren ondasun publikoetan, edo etxebizitzetan edo beste higiezin batzuetan kalteak eragin ditzaketen gertakariak konpontzea edo minimizatzea, baldin eta pertsonentzat benetako arriskua badakarte, eta toki erakundeek horiek finantzatzeko gaitasunik ez dutela frogatzen badute.

Larrialdizat edo ezustekotzat jotzeko, beharrezkoa izango da kontingentzia agerian jarri izana eskaera egin aurreko azken bi hilabeteetan.

Ulertuko da toki erakundeak ez direla gai jarduketak finantzatzeko, baldin eta gastua ez badago sartuta dagokion aurrekontuan eta eskaera aurkezteko unean gastu orokorretarako diruzaintzako gerakin likidoaren eta finantzatu beharreko jarduketaren aurrekontuaren arteko ratioa 3 (hiru) baino txikiagoa bada eta hurrengo 4.2 puntuko c) eta d) apartatueta aipatzen diren nahitaez aurkeztu beharreko ziurtagiriak behar bezala egiaztatuta badaude.

Arabako kontzejuen kasuan, eskaera egiten den egunean kutxan dauden kopuruak hartuko dira erreferentziatzat. Kontzeptu horri une horretan esleituta dauden obretarako toki erakundeak jarritako baliabide propioen zenbatekoa deskontatuko zaio. Zenbateko hori berrikusi eta egokitu ahal izango da, instrukzio organoko teknikariek beharrezkotzat jotzen duten dokumentazio gehigarria oinarri hartuta.

Diruz lagundu ahal izango dira honako egitate hauengatik sortutako betebeharrak ekonomikoak:

- Fenomeno naturalek eragindako kalteak.
- Arau aldaketek, eskumenak bereganatzeak edo administrazio publikoen ebazpenek ezarritako betebeharrak.
- Dagoeneko esleituta dauden eta halakorik ez duten eta hasieran antzeman ez diren azpiegitura edo ekipamenduei estankotasuna, egonkortasuna eta segurtasuna bermatzeko beharrezkoak diren obren aldaketak, betiere gabezia horrekin pertsonen segurtasuna arriskuan jartzen bada.
- Aurreikusten gaitz direlako aurrekontuan sartu ezin izan diren gertaerak eta ezinbestean gertatzen direnak.
- Etxebizitzaren egonkortasuna edo han bizi diren pertsonak babesteko beharrezkoa den beste edozein egoera.

Inolaz ere ez dira onartuko betebeharrak hauek: interesak, errekaratuak, zehapenak (administratiboak zein penalak), ez prozedura judizialeko gastuak.

Dirulaguntzaren xede den jarduketa egiten denean toki erakundeak ahaleginak egin beharko ditu oztopo arkitektonikoak eta komunikazio oztopoak ezabatzeko, egonez gero.

Diruz lagundutako jarduera gauzatzeko administrazio kontratuak egiten direnean, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 22. artikulua aplikatuko da (haren bidez, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistatik gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onetsi zen). Ondorioz, kontratua betetzeko baldintzen artean adjudikaziodunak izango duen betebeharrak bat jasoko da: prestazioa ematean, emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko neurriak aplikatzea; hori guztiori, kontratuen legedia betetzeko eta betiere organo eskudunak finkatuta kontratazio mota edo ezaugarri horri halako neurria aplikatu behar zaiola. Halaber, bat etorritik Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak ezarritakoarekin, adjudikaziodunak hizkuntza ofizial bien tratamendu eta erabilera egokiak bermatu beharko ditu, organo eskudunak uste badu kontratuaren xedeak hala eskatzen duela.

2. Erakunde onuradunen betekizunak

2.1 Deialdi honetan jasotako dirulaguntzak Arabako Lurralde Historikoko udalek (Vitoria-Gasteizkoak izan ezik) eta kontzejuek jaso ahal izango dituzte.

2.2. Onuraduntzat joko dira dirulaguntza emateko moduko egoeran dauden toki erakundeak edo oinarri arautzaileetan eta deialdian ezartzen diren inguruabarretan daudenak, baldin eta Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen 11/2016 Foru Arauan ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

3. Dirulaguntzaren zuzkidura eta zenbatekoa

Deialdiko dirulaguntzen programarako hasierako zuzkidura 500.000,00 euro izango da: 300.000,00 euro 2024. urtearen kontura eta 200.000,00 euro, berriz, 2025. urtearen kontura Arabako Foru Aldundiaren 2024. urterako luzatutako 2023ko aurrekontuko "10.2.03. G/459100/76200105 Larrialdiko obrak" partidan.

Hala ere, zenbateko hori Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren urteko zuzkiduraren ehuneko seira arte handitu ahal izango da gehienez.

Eman beharreko dirulaguntza diruz lagun daitekeen aurrekontuaren ehuneko 100era irits daiteke. Tokiko erakunde bakoitzari gehienez 300.000,00 euroko dirulaguntza emango zaio deialdi honetan.

4. Eskaerak aurkezteko epea eta tokia

4.1. Deialdi honen xede diren laguntzak ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik programaren indarraldia amaitu arte eskatu ahal izango dira. Hori gertatuko da, jasotako eskaeren arabera, aurrekontu erabilgarria agortzen denean, baita, hala badagokio, adostu litezkeen aurrekontu zabalteak agortzen direnean ere. Aurrekontu esleipena bukatzen baldin bada, web orri honetan argitaratuko da: www.araba.eus.

Nolanahi ere, programaren indarraldia, eskabideak aurkezteari dagokionez, 2024ko abenduaren 31n amaituko da.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2 artikuluan xedatutakoa betetzeko, eskaerak berariazko izapidearen bidez aurkeztuko dira, eta egoitza elektronikoa honetan egongo da eskuragarri:

<https://egoitza.araba.eus/es/-/ayudas-impresvistos-y-obras-de-emergencia>.

<https://egoitza.araba.eus/eu/-/ustekabeko-eta-larrialdiko-obrentzako-laguntzak>.

Programa amaitutakoan, ez da beste eskaerarik onartuko.

4.2. Eskaerarekin batera, honako agiri hauek aurkeztu behar dira nahitaez:

a) Hirigintza arloan eskumena duen udal organoko teknikari eskudunak egindako txostena. Txosten horretan, arrazoituko dira dena delako ondasunaren mantentze-beharra eta -egoera, kontingentziaren aurretik.

b) Dirulaguntza onesteko eskatzen den jarduketaren edo jarduketaren aurrekontu xehatua, kokapen, kapitulu eta obra unitateen arabera, eta, hala badagokio, baloratutako proiektu teknikoak, behar besteko legezko eskumenak dituen teknikari batek idatzia.

c) Erakunde eskatzaileak kreditu egokirik ez duela eta eskatutako jarduketa finantzatzeko gaitasunik ez duela egiaztatzen duen dokumentazioa. Horretarako, honako hauek aurkeztu beharko dira:

1. Erakunde eskatzailea udal bat bada:

- Aurrekontu kreditu nahikorik ez izatearen ziurtagiria, toki erakunde eskatzailearen organo eskudunak emana.

- Dagokion aurrekontu aldaketa egiteko ezintasunari buruzko txosten ziurtagiria, toki erakunde eskatzailearen organo eskudunak emana. Gertakaria "1. Deialdiaren xedea" apartatuko a letran badago, ez da beharrezkoa izango txosten hori aurkeztea.

- Diruzaintzako gerakin likidoaren ziurtagiria, eskaera egiteko unean.

2. Erakunde eskatzailea kontzeju bat bada:

- Bankuko kontuetako saldoaren eta bankuko posizioen ziurtagiria, eskaera egiteko unean.

- Fede-emailearen ziurtagiria, esleitutako obren zerrenda, halakorik balego, eta kontzejuak jarduketa horietarako bideratutako baliabide propioen zenbatekoak jasotzen dituen.

d) Espedientea eragin duen egitatea gertatu dela egiaztatzen duen agiria. Deialdi honen lehenengo apartatuan jasotako bi hilabeteko epea behar bezala egiaztatu beharko da, hirigintzako udal zerbitzuaren txostenaren bidez. Gertakaria 1. puntuko a) apartatuan (fenomeno naturalek eragindako kalteak) jasotako kausen ondoriozkoa bada, Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak emandako datu meteorologikoen ziurtagiria ere aurkeztu beharko da.

e) Obrak dirulaguntza ematen denetik aurrera hasteko epearen aurreikuspena. Aurreikuspen horrek kontuan hartu beharko ditu lor daitezkeen lizentziak ematea, erakundearen barneko administrazio izapidetzea eta kontratazioa.

f) Lanak gauzatzeko programa edo obra plan adierazgarria agertu behar da, denboraren eta kostuen aurreikuspenarekin.

g) Eskatzaileak xede bererako nazioko zein nazioarteko edozein administrazio, erakunde publiko edo entitate pribaturen dirulaguntzarik, laguntzarik, diru sarrerarik edo baliabiderik jaso badu, horren berri ematen duen ziurtagiria, Idazkaritzak egina.

4.3. Ezustekoa eragin duen egitatea deialdi honetako lehenengo apartatuan adierazitako kasuen a) edo d) letretan azaltzen direnetakoa bada, aurreko apartatuan adierazitakoaz gainera, honako hauek frogatu beharko ditu erakunde eskatzaileak:

a) Kalteak eragin izana argazki dokumentazioaren bidez.

b) Eragindako eremuen mantentze egoera egokia.

c) Ondasunaren edo jarduketaren xedearen titulartasuna.

4.4. Nolanahi ere, Lurralde Oreka eta Lurralde Antolamenduaren Sailak aurkeztutako eskaerak behar bezala ulertzeko eta ebaluatzeko behar dituen informazio osagarri guztiak eskatu ahal izango ditu.

4.5. Baldin eta aurkeztutako eskaerek ez badituzte betetzen adierazitako baldintzak, Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailak erakunde interesdunei hamar eguneko epea emango die hutsa konpon dezaten edo nahitaezko agiriak aurkez ditzaten. Hori egin ezean, eskaera artxibatu egingo da, eskaeran atzera egin dutela ulertuz.

4.6. Dirulaguntzak eskuratzeko eskaerak aurkezteak esan nahi du deialdi honetan ezarritakoa formalki eta berariaz onartzen dela.

5. Deialdiaren ebazpena

5.1. Laguntzak eskaeren aurkezpen hurrenkeraren arabera esleituko dira, deialdirako ezarritako saldoa edo deialdiaren indarraldia amaitu arte. Eskaeren aurkezpen hurrenkera zehazteko kontuan hartuko den data oinarri hauetan eta, hala badagokio, urteko deialdian xedatutakoaren arabera eskatzen diren agiri guztiak garaiz eta behar bezala ematen diren unea izango da.

5.2. Toki Azpiegitura eta Ekipamenduen Sustapenaren eta Finantzaketaren Zerbitzuak izango du prozedura izapidetzeko eskumena.

5.3. Eskaera zuzena eta osoa jaso ondoren, prozeduraren instrukzioa egiteko eskumena duen organoak eskaera analizatu eta aztertuko du, dagokion instrukzio txostena egiteko. Txosten horretan, bidalitako dokumentazio teknikoari egindako analisiaren emaitzaren azalpena jasoko da, bai eta aurrez aurreko egiaztapenarena ere, hori egin bada. Bertan, kasuan kasuko gomendio eta aginduak jaso ahal izango dira, eta, era berean, txostena idatzi duten teknikariek egokitzat jotzen dutenean, konponbiderako proposamen teknikoak, kalteak lehenegoratzeko, inpaktuak minimizatzea eta abar. Era berean, obrak definitzeko eta gauzatzeko behar den dokumentazio teknikoaren premiari buruzko aginduak (proiektuak, memoriak, azterlan topografikoak, geologikoak...) jaso ahal izango ditu. Agindu horiek nahitaez bete beharrekoak dira, eta dirulaguntza jasotzeko baldintza izango dira ebatzi duen organoak berariaz onetsi baditu, bai dirulaguntza emateko xedapenean, bai instrukzio organoak kide anitzeko organoari aurkeztutako txostena onartzean.

5.4. Instrukzio txostena kide anitzeko organo bati aurkeztuko zaio. Hauek osatuko dute organo hori: Lurralde Orekaren zuzendaria, presidente gisa; Toki Azpiegitura eta Ekipamenduen Sustapenaren eta Finantzaketaren Zerbitzuari atxikitako pertsonen arteko bokal bat edo gehiago; eta zerbitziburua, edo hark eskuordetutako pertsona, zeinak idazkari lanetan jardungo baitu.

Kide anitzeko organoak ebazpen proposamena egingo du, eta ebazteko eskumena duen organoari helaraziko dio.

Proposamenak eskaera bat baino gehiago baditu, haien lehentasun hurrenkera jaso beharko du.

5.5. Ez da egongo entzunaldiko izapiderik, ebazpenean ez baitira aintzat hartuko erakunde onuradunek aurkeztutako gertaerak eta agiriak baino.

5.6. Eman beharreko ebazpena emango du organo eskudunak, hiru hilabeteko epean gehienez, eskaera zuzen eta osorik sartzen denetik aurrera. Gehieneko epea igarota esanbidezko ebazpenik hartu ez bada, eskaerari ezezkua eman zaiola ulertu ahal izango dute erakunde eskaiztaileek.

5.7. Dirulaguntzak emateko ebazpenean jaso beharko da dirulaguntza eman zaien erakunde onuradunen izena, eta espresuki adieraziko da gainerako eskaerak ezetsi egin direla.

5.8. Ebazpenean, aldekoa bada, honako hauek adieraziko dira: dirulaguntzaren zenbatekoa, ordaintzeko modua, zer baldintzatan ematen den, lana egiteko epea eta adierazitako epean egin ez izanaren ondorioak.

5.9. Ebazpen hori erakunde onuradunei jakinaraziko zaie Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 41. artikuluan ezarritakoaren arabera.

5.10. Ebazpenak administrazio bidea agortuko du. Haren aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Vitoria-Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegietan, bat etorritik Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 8. artikuluan xedatutakoarekin, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazten denetik aurrera.

5.11. Erakunde onuradunen batek dirulaguntzari uko eginez gero, oinarri orokorren bosgarren apartatuan adierazitako lehentasun hurrenkeraren arabera hurrengo toki erakundeei eman ahal izango zaie dirulaguntza, deialdiari azkenean esleitutako zenbateko ekonomikoaren mugarekin. Ondorio horietarako, eskaera behar bezala eta osorik egin denean aurkeztu dela ulertuko da.

5.12. Diruz lagundutako jardueraren zabalkundea eta publizitatea, euskarria edozein dela ere (liburuxkak, kartelak, argitalpenak...), bi hizkuntza ofizialetan egin beharko da.

6. Xedea gauzatzeko eta obligazioa onartzeko epea

6.1. Dirulaguntzaren xede den proiektua edo jarduketa 2024ko abenduaren 31 baino lehen gauzatu beharko da, salbu eta emakida ebazpena 2024ko azken 5 hilabeteetan onesten bada. Kasu horretan, obra gauzatzeko gehieneko epe bat eman ahal izango da, 2025eko ekainaren 30era arte.

6.2. Kasu berezietan, eta aurretik bidezko justifikazioa onartuta, Lurralde Oreka eta Lurralde Antolamenduaren Sailak dirulaguntzaren xedea gauzatzeko eta obligazioa onartzeko epealdia luzatzea onartu ahal izango du. Luzapenaren iraupena kasuan kasuko inguruabarren arabera finkatuko da; nolana ere, epealdia 6 hilabete luzatu ahal izango da gehienez, erakunde onuradunak eskaera justifikatua aurkeztuz gero hasierako epealdia amaitu aurretik eta Toki Azpiegitura eta Ekipamenduen Sustapenaren eta Finantzaketaren Zerbitzuko teknikariek aldeko txostena emanda.

7. Dirulaguntza ordaintzea

Ordaintetak izendunak izango dira erakunde onuradun bakoitzarentzat.

Dirulaguntza, zati batean edo osorik, konturako ordainteketa bidez emango da. Horretarako, erakundeak gastuaren egiaztagiria (fakturak) eta, hala badagokio, obra ziurtagiriak eman beharko ditu. Fakturak behar bezala onartu beharko ditu tokiko erakundeak.

Gastuaren lehen ziurtagiriarekin edo frogagiriarekin batera, kontratazio prozeduraren esleipen ebazpena aurkeztu beharko da.

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legean ezarritakoaren arabera kontratu txikia bada, kontratazioa egin aurretik gutxienez hiru eskaintza aurkeztu beharko dira hornitzaile desberdinei eskatuta, salbu eta ezaugarri bereziak direla-eta merkatuan ez badago eskaintza horiek egiteko behar adina hornitzaile; hori hala bada, erakunde eskatzaileak behar bezala justifikatu beharko du sinatutako dokumentu batean.

Bat etorritik Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak ezarritakoarekin, obren adjudikaziodunak hizkuntza ofizial bien tratamendu eta erabilera egokiak bermatu beharko ditu, organo eskudunak uste badu kontratuaren xedeak hala eskatzen duela.

Ordaintetak justifikatu beharreko aurrerakinak izango dira.

8. Dirulaguntzen justifikazioa

Dirulaguntzen justifikazioak justifikazio kontuaren forma izango du, eta honako hauek osatuko dute:

1) Dirulaguntza ematean ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzen duen txostena, burututako ekintzak eta lortutako emaitzak adierazita. Instrukzio organoko teknikariek obra gauzatzeko proiektua idazteko agindua eman badute, obra amaierako proiektua ere aurkeztu beharko dute.

Era berean, memoria horretan adierazi beharko da zein hizkuntzatan egin den hedapena edo publizitatea.

2) Jarduerako gastu eta inbertsio guztien zerrenda sailkatu bat, ondoko hauek adierazten dituen: hartzekoduna, gastu agiriaren edo fakturaren zenbakia, zenbatekoa, jaulkitze data eta, hala badagokio, ordainketaren data.

3) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten bestelako diru sarreren eta dirulaguntzen xehe-tasunak, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

4) Hala badagokio, itzulketaren ordainketa gutuna, aplikatu ez diren soberakinen kasuan, baita horietatik eratorritako interesena ere.

Itzulketak lotuta egongo dira toki erakunde bakoitzak Arabako Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtsean dituen partaidetzei.

Justifikazio kontua aurkezteko azken eguna 2025eko martxoaren 31 izango da, gauzatzeko epea 2025eko ekainaren 30era artekoa duten eskaeren kasuan izan ezik; kasu horretan, justifikazio kontua aurkezteko epea 2025eko irailaren 30ean amaituko da.

Laguntzaren onuradunek egindako ordainketen egiaztagiria bidali beharko dituzte dirulaguntzaren xede den jarduera amaitu ondoren, eta bi hilabeteko epea izango dute, dirulaguntzaren azken ordainketa egiten den egunetik aurrera.

9. Dirulaguntza galtzea

Onuradunek galdu egin ahalko dituzte deialdi honetan emandako dirulaguntzak, alde zurreratik espediente hasita, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak eta Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak ezarritako kasuetan.

10. Publizitatea

Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da.

11. Azken klausulak

Oinarri orokorretan eta deialdi honetan xedatuta ez dagoen guztia Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak eta Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak arautuko dute, baita aplikagarriak diren gainerako arauak ere.